

“EKIN+” PROGRAMA: ENPRESA EKIMEN BERRITZAILEAK SORTZEKO, HAZTEKO ETA FINKATZEKO PROGRAMAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

ATARIKOA

Donostiako Sustapena SAK (aurrerantzean Donostiako Sustapena ere deituko zaio), Donostiako Udalaren garapen ekonomikorako sozietateak, besteak beste, hiriaren garapen ekonomikoa eta soziala bultzatzea du helburu, batez ere kohesio- eta jasangarritasun-irizpideen arabera, hiriko eragileekin eta haien artean ituna eta lankidetzaren eginez, eta zalantzarik gabe proiektu berritzaileak garatzearen alde eginez, hirirako eredu eraldatzaile gisa.

2011tik, Donostiako Sustapenak eta Donostiako Udalak estrategia hori urtero ezartzeko tresna bat jarri dute, Ekonomia Bultzatzeko Plana.

Tresna horri esker, hiriaren erronka sozial eta ekonomiko desberdinei aurre egin ahal izan zaie, tokian-tokian, baina baita maila globalean ere, azken 12 urteetan, lehiakortasuna eta posizionamendua handituz.

Berrikuntzaren eta ekintzailtzaren aldeko apustu estrategikoan, 2022ko Sustapen Planak hainbat ildo landu zituen, produkzio-sare berritzaileari holistikoki laguntza emateko eta, horrela, inpaktu handiagoa izateko, helburuaren lehentasunezko izaeraren arabera aurrekontu-dedikazioarekin, 1.2 milioi eurotik gorakoa.

Horrela, hainbat planotan lan egin zen, transferentzia teknologikoan esaterako, 330.000 euroko aurrekontu-apustuari esker, 29 enpresak hiriko puntako erakundeekin lan egin ahal izan zuten. Kualifikazio handiko langileak kontratatuz enpresak indartzeari dagokionez, berrogei bat onuradunek mota horretako profilak kontratatu ahal izan zituzten, ia 650.000 euroko aurrekontu-zuzkidurari esker. Bestalde, 66 laguntza eman ziren merkatuko enpresa-proiektu berritzaileak hazteko, merkatutik hurbil dauden I+G+b ekintzak, hazkunderako finantzaketa-proiektuak, garapen teknologikoa babestea eta abar garatzeko.

Azkenik, azelerazio-prozesu aurreratu bat egin zen 23 enpresa-proiektu berritzaileekin, Ekin+ programaren bidez, 100.000 eurotik gorako aurrekontuarekin.

2023an, hainbat faktorek (gerra Ukrainan, inflazioa, etab.) markatutako testuinguru sozioekonomiko global konplexu batean, Donostiako Sustapenak ekintzailtzaren eta enpresa-proiektu berritzaileen garapenaren aldeko apustu estrategikoa indartu zuen.

Gaur egun 15.875 enpresa ditu hiriak, hau da, 85 enpresa/1.000 biztanleko dentsitatea. Espainiako hirugarren hiria da, Bartzelona eta Madrilen atzetik, eta Valentzia, Malaga edo Bilbo bezalako hiriburuen aurretik.

2022an, Gipuzkoako hiriburuak I+G+b arloan sortutako enpresa berrien kopuru esanguratsua erregistratu zuen; guztira 118 enpresa proiektu, 2021ean lortutako maila altua gainditu zutenak (115 proiektu), eta, aldi berean, hirian sortutako enpresa guztien % 8.

Hala ere, TEAk (Jarduera Ekintzailearen Tasa), pandemia aurreko mailetan kokatzen bada ere, % 6,6ra heltzean, eta horrek Espainiako batez bestekoaren gainetik jartzen du (% 6), oraindik urrun jarraitzen du esparru horretako ekosistema aurreratuenetatik eta EBko batez bestekotik (% 9,6).

Aldi berean, hiriak enpresa txikiak nagusi diren enpresa-ehuna du, ehunaren % 73 1-2 langileko enpresak baitira, eta % 92,2ra arte 1-9 langile ditu.

Horregatik, Donostiako Sustapenak hainbat programa eta neurri antolatzen ditu, bai enpresa-sare berritzailea bultzatzeko eta indartzeko, bai enpresa-proiektu berritzaile berriak garatzeko, hiriaren lehiakortasun-hazkundera bultzatzeko, I+G ekosistemaren bidez.

Esparru horretan, Donostiako Sustapenak Ekin+ programa antolatzen du planteatutako erronka berriei erantzuteko, zerbitzu aurreratuen eta aholkularitza espezializatuaren eta laguntza ekonomikoen bidez, gure hirian proiektu eta proiektu gazte berriak bultzatzeko.

XEDAPENAK

1. ARTIKULUA HELBURUA

Ekin+ programaren helburua Donostian *startup* enpresak sortu, bultzatu, hazi eta finkatzen laguntzea da; horretarako, hasierako fasean, egitasmo berritzaileak, eskalagarriak eta inbertitzeko modukoak balioztatzeko, abian jartzeko, finantzatzeko eta lantzeko laguntza eskainiko zaie ekintzaileei eta *startup* enpresei, proiektu berritzaileetan errendimendu handia duen komunitatearen sorkuntza bultzatuz eta ekintzaitza ekimenak eta tokian tokiko enpresa eragileak elkartzeko guneak sortuz.

Soluziobide berritzaileak, oro har, aurkezten dituzten enpresa proiektu berriak, baita eraldaketa ekonomiko eta sozialaren alde egiten duten eta erantzun nahi dioten egitasmoak ere sustatu nahi dira.

Ekin+ programa honako hauei zuzentzen zaie:

- Eskaera aurkeztu eta gero Donostian eratuko den enpresa proiektu berritzaile bat eta/edo oinarri teknologikoa duen egitasmo bat duten **ekintzaileak**.
- **Enpresa berritzaileak eta/edo oinarri teknologikoa dutenak, Donostian kokatutakoak eta sortu berriak**; enpresa proiektu berritzaile bat eta gehienez ere 5 urte izan behar dituzte. Sektore batzuetan, gehienez ere 7 urte dituzten enpresak onartzeko aukera egongo da.
- Enpresa txikiak, I+Gko produktu/teknologia intentsiboen dibertsifikazio-prozesuen esparruan enpresa-proiektu bati ekiten diotenak (**barne-ekintzaitza**).
- Ezagutza sortzeko agenteen **spin offs-ak** (ikerketa-zentroak, teknologia-zentroak, unibertsitateak, etab.), garatutako aktibo teknologikoak transferitzeko eta merkatura iristeko.

Ekin+ programa laguntzeko tresna orohartzailea da, honako lerro hauek dituena:

- 1) **Ekin+ Aholkularitza**: adituen laguntza eta laguntzeko zerbitzu osagarriak.
- 2) **Prestasunerako laguntza**: Ekin+ Aholkularitza fasean ezarritako helburuak lortzeko beharrezkoa den prestasuna izateko laguntza ekonomikoa.
- 3) **Ekin+ laguntza**: enpresa proiektuak azeleratzean inpaktua izango duten gastuak ordaintzeko dirulaguntza.
- 4) **Lanerako espazioak erabiltzeko aukera**: Donostiako Sustapenaren eraikin eta enpresa guneetan.
- 5) **Elkargi abalen funtsa erabiltzeko aukera**

6) Ostatua/etxebizitza erabiltzeko aukera: Donostiako Sustapenak utzitako eraikinetan, gazte donostiarrentzako Talent egonaldi programan ezarritako baldintzak betez gero.

7) Ekin+ komunitatearekin bat egitea

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostiako Sustapenak HIRUREHUN MILA (300.000) euro bideratuko du Ekin+ programarako. Donostia Sustapenak, horrela nahi badu, kopuru hau alda dezake.

3. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNAK

Pertsona onuraduntzat joko da dirulaguntza jaso zuen jarduera egin behar duena edo dirulaguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena, baldin eta Oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen baditu, batez ere, laguntza mota bakoitzari dagozkionak.

Dirulaguntzen onuradunak honako hauek izan daitezke: pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak, estatukoak edo atzerrikoak, baita aurrekoen izaerarik ez duten elkarteak ere, behar bezala –ordenamendu juridikoarekin bat– eratuta badaude eta Oinarri hauetan finkatutako baldintzak betetzen badituzte. Kanpo geratzen dira ondare sozietateak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14. artikuluan zehaztutakoak.

Oinarri hauetan, dagozkion laguntzak eskatzeko bete behar diren baldintzak eta haiek egiaztatzeko moduak zehaztuko dira; izan ere, kasu guztietan Dirulaguntzen Lege Orokorren 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da. Ondorio horietarako, aipatu legea aplikatu behar dela esanbidez adierazten da.

Laguntza ezin izango zaie pertsona fisiko edo juridikoei eman honako kasu hauetan:

- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta/edo Gizarte Segurantzarekikoak betetzen ez badituzte.
- Ebazpen irmo baten bidez dirulaguntza eta/edo laguntza publikoak jaso ahal izateko aukera galtzea dakarren zigorra ezarri bazaie, edota horretarako ezgaitzen duen lege debekua badute, sexuan oinarritutako diskriminazioagatik ezarritakoak barne, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera; halaber, ezingo dira onuradun izan dagokion zehapenean ezarritako aldiaren sexuagatik bereizkeriagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudia ez betetzeagatik administrazioko edo zigor arloko zehapena jaso duten pertsona fisikoak edo onuradunak. Halaber, ezingo dute laguntza eta dirulaguntzarik jaso estatu araudiaren arabera berdintasun plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresek, baita 50 langiletik gora dituzten eta, estatu legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen bezala, sexu jazarpena,

sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu indarkeriak prebenitzeko edo haien aurka egiteko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten enpresek ere.

- Donostiako Udalarekin eta/edo Donostiako Sustapenarekin zorrak badituzte.
- Lehenago eman zaizkien dirulaguntzak edo horien zati bat oraindik itzuli ez badute, dagokion zenbatekoa itzuli dela egiaztatzen ez den bitartean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, interesdunek badute eskubidea administrazio jardulearen eskuetan dauden dokumentuak edo beste administrazioen batek egindako agiriak ez ekartzeko. Gainera, administrazio jarduleak agiri horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, interesdunak ez badu desadostasuna adierazi; horrelakoetan, agiriak aurkeztu beharko ditu.

Donostiako Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzakoa den elkarreragingarritasun aplikazioaren bidez, zuzenean kontsultatuko du Administrazio Publiko eskudunetan ondoko informazioa, prozedura hau ebazteko eta ordainketak egiteko:

- Udalarekiko eta Donostiako Sustapenarekiko zorrak ordainduta daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Foru Ogasunaren zorretan ez egotea egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Ekonomia jardueren gaineko zergaren historia, onuradunari zein sustatzaileei dagokiena.
- Gizarte Segurantzarekin zorretan ez egotea egiaztatzen duten ziurtagiriak.

Dirulaguntza eskatzeko orduan eta ordainketak egiterakoan Udal Zerga Bilketarekin, Foru Ogasunarekin eta/edo Gizarte Segurantzaren zorrak dituzten onuradunek jakinarazpena jaso eta hurrengo HAMAR (10) egun balioduneko epean egiaztatu beharko dute ordainketa horiek egunean dituztela.

4. ARTIKULUA. ONURADUNEK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

Oro har, onuradunek deialdian parte hartzeko honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Donostian garatuko diren enpresa proiektu berritzaileak eta eskalagarriak aurkeztea.
- b) Eskatzaileak konpromisoa hartzea ibilbide orrian eskatu eta adostutako denbora eskainiko duela programa honen garapenerako, hau da, gutxienez, pertsona baten 4 hilabeteko lanaldi osoaren baliokidea, pertsona batek edo proiektuari lotutako hainbat pertsonak betetzeko.

Eskaera egiten denean beste azelerazio programa batzuetan parte hartzen duten edo Ekin+ garatu bitartean beste programa batzuetan parte hartuko dutenek horren berri eman beharko diote Donostiako Sustapenari; ondorioz, erakundeak programa honen baldintzak kasu zehatz horretan aldatu edo laguntza ukatu ahal izango du.

- c) Honako kolektibo hauetako batekoak izango dira:
 - a. Ekintzaitza prozesuan dauden pertsona fisikoak;
 - b. Irabazpidezko jarduera ekonomiko bat gauzatzen duten pertsona fisikoak;

- c. Pertsona juridikoak.
- d) Irabazpidezko jarduera ekonomiko bat gauzatzen duten pertsona fisikoen eta pertsona juridikoen kasuan, honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskaera egiteko unean:
- i) Startup motakoa izatea: enpresa berritzaile berria eta/edo oinarri teknologikoa duena, areagotzeko moduko negozio eredu batekoa.
 - ii) Diruz laguntzen den jardueraren zerga egoitza eta/edo lantokia Donostian egotea.
 - iii) Jarduera ekonomikoen gaineko zergan lehen izen ematea edo, aurrekorik egin ezean, zentsu aitorpenean alta egitea eskaera aurkezten den eguna baino gehienez ere 5 urte lehenagokoa izango da. Salbuespen gisa, Donostiako Sustapenak beste alta data bat duten eskatzaileek parte hartzea onartu ahal izango du.
 - iv) Gainera, honako baldintza hauek bete beharko ditu eskatzaileak:
 1. Aktiboak 10 milioi euro ez gainditzea edo, bestela, eragiketa bolumenak, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean jasota dagoen definizioari jarraikiz, 10 milioi euro ez gainditzea.
 2. Langileen batez besteko kopurua 50etik beherakoa izatea. Langileen batez besteko kopurua kalkulatzeko, urteko lanaldi osoan lan egiten duten langileak hartuko dira aintzat. Lanaldi partzialeko langileen kasuan, lan egindako orduetako proportzionala izango da zenbaketa.
- Erakundea sozietate taldekoa ez denean, Merkataritza Kodearen 42. artikularekin bat, aurreko 1. eta 2. zenbakietan aipatutako kopuruek taldea osatzen duten erakunde guztiei egingo diete erreferentzia.
- Aktibo osoa eta eragiketa bolumena kalkulatzeko, kontuan izango dira Merkataritza Kodearen 46. artikuluan eta hori garatzeko araudietan xedatutakoarekin bat datozen bidezko baztertzeak.
- e) Proiektua oraindik eratu gabe dagoen enpresarena denean, eraketarako hautatuko den kokalekua Donostia izango delako konpromisoa hartu beharko du.

Adierazitako alde batera utzi gabe, honako hauek ezingo dira onuradun izan:

- Fundazioak eta elkarteak, irabazteko asmorik gabeak.
- Sektore Publikoko erakundeen (hau da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan jasota daudenen), irabazi asmorik gabeko erakundeen, ondare sozietate eta/edo profesionalen elkargoen menpe dauden erakundeak, ezta aipatutako

horietan % 25etik gorako partaidetza duten erakundeak ere, apartatu honetan adierazitako baldintza betetzen ez duten pertsona juridikoak salbu, baldin eta ez betetzeko arrazoia Zientziako, Teknologiko eta Berrikuntzako Euskal Sareko kide den erakunde baten mendekoa izatea edo horrelako batean parte hartzea bada, edo arrisku-kapitaleko erakunde batek partaidetuta egotea.

- Deialdi honetan ezingo dute parte hartu Ekin+ eta Ekin+ Osasuna programen deialdietan –aurreko 3 urteetan– onuradun izan diren proiektu edo erakundeek.

5. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

1. Ekin+ Aholkularitza, bi fasetan:

- **Fase intentsiboa:** 4 hilabetekoa
- **Jarraipen fasea:** 6 hilabetekoa

Fase horietan eskainiko diren zerbitzuak:

- Lan egiteko ibilbide orri bat diseinatzea eta lortu nahi diren helburuak eta une garrantzitsuak markatzea
- Ezarritako helburuak lortzeko banakako tutoretza.
- Aholkularitza pertsonalizatua eta espezializatua, finantza plana, negozio eredua, nazioartekotze politika, berrikuntza, merkatuan sartzea eta abarrak bideratzeko.
- Aholkularitza espezializatua jabetza industrial eta intelektualeko estrategian, marketin eta komunikazioan, I+G+b arloko finantzaketan, datuak ingurune digitaletan kudeatzean...
- Aholkularitza espezializatua eta lagun egitea inbertsioaren eta, oro har, fundraisingaren arloan: inbertsio-proposamenak (Deck) eta Investment readiness delakoaren gainerako jarduerak egitea, finantzaketa-proposamenak mota guztietako finantza-erakundeei, dirulaguntzak kudeatzen dituzten erakundeei, I+Garen edo haren transferentziaren pizgarri fiskaletarako tresnei (64 bis, Tax Lease, Patent box,...), matching-a inbertitzaileekin (family offices, arrisku-kapitaleko erakundeak, etab.).
- Tokiko, eskualdeko, nazioko eta nazioarteko inbertsio-industriarako sarbidea, kapitalizazio-beharrak asetzeko.

2. Prestasunerako laguntza.

5.000 euroko dirulaguntza, Ekin+ Aholkularitza fasean ezarritako helburuak lortzeko beharrezkoa den prestasuna izatea ahalbidetzeko.

3. Ekin+ laguntza:

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa **20.000 euro** izango da eta muga bat jarriko da dirulaguntzaren kontzeptu bakoitzeko, jarraian adierazitako moduan. Laguntza

justifikatzeko orduan legez eratuta eta ekonomia jardueren gaineko zergan alta emanda dauden enpresek bakarrik jaso ahal izango dute dirulaguntza hau.

3.1. Gazte kualifikatuen KONTRATAZIO BERRIAK; gehienez ere 13.000 euro kontratazio berri bakoitzeko.

Ezarritako dirulaguntzaren zenbatekoa honako hau izango da: **10.000 euro, lanaldi osoko kontratu berriaren lehenengo sei hilabete diruz laguntzeko.**

Dirulaguntzaren oinarria %10 igo ahal izango da, baldin eta:

- a) kontratatutako pertsona **emakumea** bada.
- b) kontratatutako pertsonaren **lehenengo lan kontratazioa** bada, bai emakumeentzat, bai gizonentzat.
- c) Kontratatutako pertsona Donostiara itzultzen den donostiarra bada (**tokikoa itzultzea**)

Gehikuntzak metagarriak diren arren, dirulaguntzaren zenbatekoak inola ere ez du gaudituko HAMAHIRU MILA (13.000) EURO kontratazio bakoitzeko.

3.2. FINANTZAKETA AUKERA: gehieneko laguntza 10.000 euro; %70 diruz lagundu ahal izango da.

Diruz lagungarriak izango dira kanpoko aholkularitzarekin eta inbertsioarekin lotutako kontzeptuak, enpresari hazkundera eta merkatuan gero eta handiago bihurtzea ahalbidetzen duen finantzaketa lortzearekin zerikusia dutenak.

3.3. BERRIKUNTZA PRODUKTU EDO ZERBITZUAN: lehenengo produktua edo produktu berri bat garatzea: gehieneko laguntza 15.000 euro; %70 diruz lagundu ahal izango da.

Berrikuntzarako aholkularitza eta laguntzarako eskatu ahal izango da dirulaguntza, honako hauek bideratzeko: ikerketa eta garapen proiektuak; produktu berriak garatzeko tresneria eta materiala eskuratzeko inbertsioak; kanpoko adituen txostenak, ziurtagiriak eta auditoretzak.

3.4. I+G BABESA: gehieneko laguntza 15.000euro; %70 diruz lagundu ahal izango da.

Laguntza ezagutza teknikoaren ikerketak eta/edo garapena kontratatzeko eta aholkularitzarako eskatu ahal izango da, baita kanpoko iturriekiko lizentzia akordioen bidez merkatuko prezioetan eskuratutako patenteak erosteko eta jabetza industrial eta/edo intelektualaren eskubideak eskuratu, babestu eta saltzeko aholkularitzaren kostuetarako ere.

3.5. NAZIOARTEKO MERKATUEN GARAPENA: gehieneko laguntza 6.000 euro; %70 diruz lagundu ahal izango da.

Laguntza nazioarteko merkatuen garapena bultzatzeko eta aholkuak jasotzeko

eskatu ahal izango da. Aholkularitzarekin zerikusirik ez duten inbertsio gastuekin lotutako kostu guztiek proiektu berritzailea nazioartekotzeko plan bat eduki beharko dute eta koherenteak izango dira aurkeztutako gastuekin:

4. Lanerako espazioak erabiltzeko aukera

Ekin+ programaren onuradunek lanerako espazioak eskatu ahal izango dituzte: Donostiako Sustapenaren *coworking* guneko banakako lanpostu bat edo bulego propio bat, Donostiako Sustapenaren enpresa gunetako batean. Espazioak esleituko dira, baldin eta erabilgarri badaude eskaera egiten den unean.

Donostiako Sustapenaren *coworking* guneko lanpostuaren kasuan, doakoa izango da programa indarrean dagoen bitartean eta *coworking* gunearen ordutegiari eta kudeaketari buruzko erabilera baldintzen arabera erabili beharko da.

Donostiako Sustapenaren enpresa gunetako bateko bulego propioaren kasuan, benetako kostuaren gainean hobari bat aplikatuko da, gutxienez, urtebetez. Hobaria espazio motaren, iraupenaren, beharren eta erabilgarritasunaren arabera zehaztuko da. Kontsumo gastuak banakakoak izango dira eta ez zaie hobaririk aplikatuko. Era berean, indarreko araudi bera aplikatuko da guztientzako espazioen eta bestelako espazioen erabilerari dagokionez. Donostiako Sustapenak horretarako programa espezifikoak garatu ahal izango ditu, eta baldintzak programa horiei dagozkienak izango dira.

Eskuragarri daudenak baino espazio gehiago eskatzen badira, eskaeren hurrenkeraren arabera esleituko dira.

5. Elkargi abalen funtsa erabiltzeko aukera

Finantzaketa Elkargi bidez eskatu behar duten proiektuen kasuan, Donostiako Sustapenak egin ahal izango du eskaera, daukan hitzarmenaren baitan.

Donostiako Sustapenak, abalak eskatzen dituen finantzaketa behar duten proiektuetan, jarduketan aurkezpenean egiten lagunduko du. Elkargik onartutako jarduketek onura atera ahal izango diete Donostiako Sustapenak proiektu berritzaileen finantzaketa arloan elkar bermatzeko erakundearekin sinatu duen Lankidetzaren Hitzarmenean jasotako baldintzei.

6. Ostalua/etxebizitza izateko aukera:

Egitasmo berritzaileek edo teknologikoen sustatzaileek, programa honen onuradunak badira, Donostiako Sustapenaren eraikinetako batean dagoen etxebizitza erabiltzeko aukera izango dute.

Horretarako, aurrekoen gain, bete beharko dituzte 2022ko abuztuaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen "Donostiako gazteentzako Talent Egoitzen programan" ezarritako baldintzak, baita arlo horretan aditzera eman daitezkeen deialdi berrietan ezarritakoak ere. Programa horiei lotutako baldintzak izango dira.

7. Ekin+ komunitatearekin bat egitea

Onuradunek Ekin+ komunitatean sartuko dira, hau da, proiektuak garatzeko interesgarriak diren gai eta datu berriak ezagutzea, egitasmoen ikusgarritasuna bultzatzea eta lankidetzan eta *networking* bidez proiektuak sortzea ahalbidetzen duen kolektiboan.

6. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUEN BALDINTZAK EGIN+ LAGUNTZA

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuek lotura izan beharko dute merkatuan haztea eta eskala handitzea ahalbidetzen duten inbertsioekin, eta beren inpaktu potentziala aurkeztutako txosten teknikoan adierazteko modukoa izango da, itzuli beharrik gabea den prestasunerako laguntzaren kasuan izan ezik.

Prestasunerako laguntza, 5.000 euro.

Donostiako Sustapenak programaren aholkulariaren aldeko txostena jaso beharko du, programaren fase intentsiborako ezarritako mugarririk betetzen direla balioesteko.

Ekin+ laguntza:

1. Gazte donostiar kualifikatuen KONTRATAZIO BERRIAK; gehienez ere 13.000 euro kontratazio berri bakoitzeko.

1.1 KONTRATATUTAKO PERTSONEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK:

Kontratatutako pertsonak, gutxienez, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Kontratuaren hasierako datan 35 urte baino gutxiago izatea.
- b) Prestakuntza kualifikatua, unibertsitateko goi mailako titulu bat **edo goi mailako heziketa zikloko titulu bat edukitzea**. Titulua atzerrian lortu bada, balorazioa egin ahal izateko, zinpeko itzultzaile batek egindako itzulpena aurkeztu beharko da; horren ordez, tituluaren homologazioa aurkeztu ahal izango da, tituluen homologazioari buruzko 889/2022 Errege Dekretuarekin bat. Prestakuntza kualifikatu gisa onartu ahal izango da beste mota bateko prestakuntza, baldin eta sektoreko edo jarduerako berariazkoak badira. Horrelakoetan, erakunde kontratatzaileak –Donostiako Sustapenaren adostasunarekin– erabakiko du ea titulazio hori garatu nahi den proiekturako eskatzen dena bezalako den.
- c) Kontratatutako diren pertsonak, kontratazioa hasi aurreko datan eta, gutxienez, lan harremana hasi aurreko egunean, **Donostian erroldatuta egon behar dute**. Gutxienez, lan harremana hasten den egunean eta aurre-aurrekoan erroldatzea frogatzen dutenak bakarrik izango dira onargarriak. Erroldatzeari dagokionez, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergaren inguruko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, erakunde kontratatzailearekin (pertsona onuraduna) edo beste edozein erakunderekin artikulua horretan ezarritakoaren arabera lotuta dagoen pertsona fisiko batena ez den helbide batean

izan behar da. Era berean, baldintza hori betetzen dela jotzeko, ez dira kontuan izango kontratatuko den pertsonak Donostiako hirian lehenago izan zituen erroldatzeak, baldin eta eten badira, edozein arrazoi dela medio.

- d) Donostiara itzultzen den tokikotzat jo nahi diren pertsonen kasuan:
- i. Donostiarekin lotura izatea. Honako baldintza hauetako bat betetzen dutenak joko dira Donostiarekin lotura duen pertsonatzat:
 - Donostian jaioa izatea.
 - Donostian gutxienez azken 5 urteetan erroldatuta egon izana.
 - Donostian dauden fakultateetako edo unibertsitate eskoletako batean titulazio ofizial bat lortu izana.
 - ii. Lan kontratua hasi aurreko 12 hilabeteetan, gutxienez, era jarraituan atzerrian edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizi izatea. Datu hori kalkulatzeko ez da aintzat hartuko kontratua hasi aurreko hilabetea.
 - iii. Lan kontratua hasi aurreko 12 hilabeteetan, gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoan lan egin ez izana.
- e) **Langabezian egotea eta Lanbide-EEZn** (Euskal Enplegu Zerbitzuan) enplegu eskatzaile gisa **izena emanda** egotea. Izena emateko eguna lan harremana hasteko eguna baino lehenagokoa izango da. Gainera, langabetuak ezin dira Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean edo Langile Autonomoen Araubide Berezian langile gisa izena emanda egon, gutxienez lan harremana hasi aurreko egunetik aurrera.
- f) Kontratatutako pertsona ezkontide, izatezko bikotekide (maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera), aurreko, ondorengo edo bigarren mailako zehar-ahaidea ez izatea, loturaren jatorria ahaidetasunean, odolkidetasunean, izatezko bikotearen eraketan sortzen den harremanean edo onuradunaren adopzioan badu ere; onuradun horrekin lotura duen pertsona ez izatea, Gipuzkoako Elkarte Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 42. artikulua 3. apartatuarekin bat.

6.2.2 LAN KONTRATAZIOETAN BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

Lan kontratazioek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, gutxienez:

- a) Lan kontratua **2023ko Urtarrilaren 1etik 2024ko Maiatzaren 30era bitartean hasiko da, baldin eta** Donostiako Sustapenak esanbidez beste hasiera data bat baimentzen ez badu, arrazoiak azalduz gero.
- b) Jasoko den soldata, alde biek sinatutako kontratuan adieraziko dena (zenbatekoa eurotan), gutxienez, urteko **20.000 euro gordin** izango da.

Salbuespen gisa, lan kontratua deialdi hau argitaratu baino lehen egin bada eta adostutako soldata aipatu zenbatekoa baino txikiagoa bada, Donostiako Sustapenak baimena emango du kontratatutako pertsonaren soldata atzerako

eraginarekin eguneratzeko, Oinarri hauetan eskatzen den gutxieneko soldata gordina (20.000 euro/urte) bermatze aldera.

- c) Gutxienez 6 hilabeteko kontratua eta lanaldi osokoa izango da.
- d) Kontratazioa diruz lagundutako denboraldian eta kontratatutako lanaldiarekin mantendu beharko da.
- e) Lan harremana lehenengo bi hilabeteetan amaitzen bada, onuradunek beste pertsona bat hilabeteko epean kontratatu beharko dute (salbu eta, azaldutako arrazoiak direla medio, Sustapenak beste hasiera data bat esanbidez baimentzen badu); kontratazioa diruz lagundutako iraupen osoa bete arte mantendu beharko da. Diruz lagundutako kontratazio bakoitzean ordezkapen bat baino ez da onartuko. Kontratazioa (kontratazioak) 6 hilabeteetik beherako epean amaitzen denean (direnean), proiektua aldi horretan beste baliabide batzuekin mantentzen bada, benetan mantendu den kontratazio aldiari proportzionalki dagokion zatia ordainduko da. Proiektua bertan behera utziz gero, laguntza atzera botako da. Kasu horretan, onuradunak gehienez ere 15 eguneko epea izango du bajaren berri Donostiako Sustapenari emateko. Kontratu berria gehienez ere 15 eguneko epean komunikatu beharko da derrigorrez, Gizarte Segurantzaren izena ematen denetik; ondoren, Donostiako Sustapenak dirulaguntza mantentzeko egin behar dituen izapideak jakinaraziko dizkio enpresari.
- f) Kontratatutako pertsonak erakunde onuradunean proiektuaren araberrako hasierako harrera jasotzen dutela bermatuko da. Harrera plan horrek barnean izango du proiektuaren jasagarritasunari buruzko prestakuntza pilula bat.

Ez dira diruz laguntzeko modukoak honako kontratazio hauek:

- a) Dirulaguntza eskatu eta gero egindako kontratuen luzapenak.
- b) Kontratuak batzea. Dirulaguntzaren xede den laguntza bakoitzeko kontratu bakarra onartuko da.
- c) Kontratu aurretiko 24 hilabeteetan enpresa berean edo beste enpresa batean – enpresa bietan % 25eko partizipazioa duten bazkide komunak badaude– lan egin duten pertsonekin egindako kontratazioak.

2. FINANTZAKETA AUKERA: gehieneko laguntza 10.000 euro; %70 diruz lagundu ahal izango da.

Enpresari merkatuan haztea eta eskalagarritasuna ahalbidetzen dizkion finantzaketa lortzearekin zerikusia duen kanpoko aholkularitzarako eta inbertsioetarako eskatu ahal izango da laguntza.

Apartatu honetan justifikatzen diren kontzeptu diruz lagungarriek honako hauekin zerikusia izan beharko dute:

- a) Finantzaketa txandak: aholkularitza finantzarioa eta/edo legala.

- b) Europako laguntzak, Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroarenak edo antzekoak.
- c) Fiskalitatearen bidez I+G finantzatzeko tresnak (64Bis eta Tax Lease).

3. BERRIKUNTZA PRODUKTU EDO ZERBITZUAN: lehenengo produktua edo produktu berri bat garatzea: gehieneko laguntza 15.000 euro; %70 diruz lagundu ahal izango da.

Apartatu honetan justifikatzen diren kontzeptu diruz lagungarriek honako hauekin zerikusia izan beharko dute:

- a) I+G aholkularitza eta laguntza teknologikoa.
- b) Produktua merkaturatzeko derrigorrezko ziurtagiriak: osasun-produktuaren CE markaketa edo antzekoa.
- c) Proba pilotuak garatzeko eta saiakerak egiteko aktiboak eskuratzeko inbertsioak, I+G jardueraren ondorioetarako soilik.

4. I+G BABESA: gehieneko laguntza 15.000 euro; %70 diruz lagundu ahal izango da.

Apartatu honetan justifikatzen diren kontzeptu diruz lagungarriek honako hauekin zerikusia izan beharko dute:

- a) I+G babesteko aholkularitza.
- b) I+Garen babesa lortzeko inbertsioak

5. NAZIOARTEKO MERKATUEN GARAPENA: gehieneko laguntza 6.000 euro; %70 diruz lagundu ahal izango da.

Apartatu honetan justifikatzen diren kontzeptu diruz lagungarriek honako hauekin zerikusia izan beharko dute:

- a) Zuzeneko eta alderantzizko misioak
- b) Azoketara joatea
- c) Nazioarteko ekintza baterako sustapen-materiala.
- d) Nazioartekotzearen plangintza estrategikoa.
- e) Egoitza berriak irekitzeko bideragarritasun-azterlanak
- f) Herrialde berrietara sartzeko azterketa eta merkataritza-kontaktuak sortzea

Proiektuari zuzenean lotutako bidaia gastuen eta dieten kasuan, ondo justifikatu beharko da bidaia proiektuaren helburuei lotuta egotea eta gauzatze epean egin izana. Horrelako gastuetan, proiektua gauzatzearekin zuzenean erlazionatua dauden langileei dagozkienak bakarrik onartuko dira, betiere izenekin identifikatuak agertzen badira.

Kasu guztietan identifikatu beharko dira onartutako proiektuari jarraikiz egindako aholku

saioak, kontsulak, azpikontratazioak eta antzekoak egin izana gerora egiaztatzea ahalbidetuko duten agiriak, nahitaez entregatu behar direnak.

7. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Laguntza horien emakida bateragarria izango da administrazio batek edo erakunde publiko edo pribatu batek (estatuko, Europar Batasuneko edo nazioartekoak) helburu bererako emandako laguntza guztiekin, betiere ondoko baldintzak betetzen badira:

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 Erregelamenduan (EB) ezarritako *de minimis* arauak beteko dituzte. Aipatutako araudia Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoa da, eta 2013ko abenduaren 24ko Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu zen.

Jasotako dirulaguntzaren zenbatekoak, Oinarri hauetan adierazitakoarekin bat, inoiz ez du diruz lagundutako jardueraren kostua gaitutuko, ez banaka, ezta beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin batera ere.

Eskaera egiten denean beste azelerazio programa batzuetan parte hartzen duten edo Ekin+ garatu bitartean beste programa batzuetan parte hartuko dutenek horren berri eman beharko diote Donostiako Sustapenari; erakundeak programa honen baldintzak aldatu edo programa bertan behera utzi ahal izango du.

8. ARTIKULUA. ESKABIDE ORRIAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Laguntza honen deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean agertuko da; gero, deialdiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Dirulaguntzaren eskaerak laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira, deialdia itxi arte, **hau da, 2023ko Azaroaren 15 arte.**

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, gerakinik egonez gero edo diru zuzkidura handituz gero, Donostiako Sustapenak ontzat ematen badu, eskaerak aurkezteko epea luzatu ahal izango da, Oinarri hauek aldatuz (horren berri hedabide egokietan emango da).

Eskaerak bide telematikoz aurkeztu behar izango dira, Donostiako Sustapenaren webgunearen bidez (www.fomentosansebastian.eus).

Eranskinak osorik beteko dira eta behar bezala sinatuta egon beharko dute.

Edozein informazio eskatzeko edo galdera egiteko, 943 482800 telefono zenbakia edo fomentoss@donostia.eus helbide elektronikoa erabil daiteke, gaian honako hau jarrita: "Ekin+ programa 2023".

Donostiako Sustapenak eskaera aurkeztu aurretiko arreta zerbitzua eskaintzen du, sor daitezkeen zalantzak argitzeko. Zerbitzua posta elektronikoz eskatu beharko da, aipatutako helbide elektronikoan, eta banakako zein taldekako saioetan eman ahal izango da, Donostiako Sustapenak erabakitako moduan eta proiektu edo laguntza motaren arabera.

Dagokion eskabide inprimakiari eskatzen den administrazioko dokumentazio osoa erantsiko zaio, dokumentazio teknikoa eta ekonomikoa barne.

Administrazioko dokumentazioa:

- **Eskaeraren eranskina**
- Dirulaguntza eskatzen duen erakundearen **“bankuko datuen” eranskina**, dagokion banku erakundeak zigilatua, edo dokumentu baliokidea, banku erakundeak behar bezala zigilatua. Ekintzaileen kasuan, justifikatzeko unean bertan aurkeztuko da.
- Pertsona fisikoa bada, eskatzailearen **NAN agiriaren kopia**.
- Pertsona juridikoa bada, eskatzailearen **IFK agiriaren kopia** eta, hala badagokio, ahalordedunaren NAN agiria.

Onuradunak bere gain hartzen du egindako erantzukizunpeko adierazpenen eta aurkezten dituen beste dokumentu guztien egiazkotasunaren erantzukizun osoa.

Pertsona interesdunek dokumentu horietako bat lehenago aurkeztu badute Donostiako Sustapenaren programetako batean parte hartzeko (2019. urteaz geroztik), ez dute atal honetan eskatzen den dokumentazioa berriro aurkeztu beharko, baldin eta indarrean jarraitzen badu eta datuak aldatu ez badira.

Dirulaguntzaren eskaera aurkezterakoan eta dagozkion ordainketak egiterakoan Udal Zerga Bilketa, Foru Ogasun eta/edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen ez dituzten erakundeek ordainketa horiek egunean dituztela egiaztatu beharko dute; horretarako, Donostiako Sustapenak akatsak zuzentzeko jakinarazpena bidaliko die.

Deskribapen txosten teknikoa eta ekonomikoa (“Txosten teknikoa” eranskina)

Garatu nahi den proiektu berritzailea azalduko du txostenak. Informazio teknikoa eta ekonomikoa jasoko du, proiektuaren diseinu orokorra deskribatuko du (faseen garapena, zereginak, arduradunak, emaitzaren adierazleak) eta argi eta garbi azalduko du proiektuaren egoera. Honako apartatu hauek izango ditu txostenak:

1. Proiektuaren izenburua.
2. Pertsona eskatzailearen eta, hala badagokio, sozietatearen identifikazio datuak eta datu orokorrak: IFK, eraketa data, sozietate kapitala...
3. Proiektuaren aurrekariak eta beharraren justifikazioa, proiektuak konpontzen duen arazoa eta produktua merkatuan sartzeko aurreikuspena azalduta.
4. Proiektuaren eta helburuen deskribapena:
 - a) Ekimenaren egungo egoera produktuaren eta teknologia/prozesuaren dimentsioan, barnean daudela aliantza estrategikoak edo lankidetzan aritzeko beste formula batzuk, baita hornitzaileak ere.
 - b) Ekimenaren egungo egoera merkatu dimentsioan, honako hauek barne: "time to

- market" delakoa, merkatuaren ezaugarriak aztertzea, proposatzen duen negozio eredu, segmentuen planteamenduak, balio proposamena, banaketa eta komunikazioa, bezeroekiko harremana.
- c) Ekimenaren egungo egoera dimentsio ekonomiko-finantzarioan eta legeari dagokionean: inbertsioen aurreikuspena, finantzaketa beharrak, monetizazio eredu eta abar.
5. Proiektuaren nazioarteko proiektzioa eta eskalagarritasun orokorra.
 6. Fase nagusien eta proiektuaren garapenaren deskribapen laburra: lanaren kronograma, jarraipena eta kontrol adierazleak.
 7. Epe laburreko jarduera plan orokorraren deskribapena, ekimenaren esparru funtzional desberdinetan: produktuaren/teknologiaren garapena, marketin eta negozioaren garapena, erregulazioa edo araudia izateko beharrak betetzea eta abar.
 8. Lantaldearen deskribapena (barneko langileak + kanpokoak).
 9. Proiektuaren bideragarritasun tekniko eta ekonomiko eta espero diren emaitzak: Proiektuaren bideragarritasun tekniko, komertzial eta ekonomikoaren aldeko defentsaren laburpena.
 10. Proiektuaren inpaktu potentziala: proiektua hiriaren ildo estrategikoekin eta Sustapenak bultzatzen dituen sektore estrategikoekin lotuta egotea.

Txostena hizkera errazean eta argi idatzia egongo da eta proiektua ulertzea eragozten duten teknizismoak saihestuko dira. Informazio zehatza jasoko du, 9. artikuluan xehetasunez azalduko diren irizpideak baloratzea ahalbidetzen duena. Txostenaren gehieneko luzera 8 orrialde izango da.

9. ARTIKULUA. ESKAERETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Donostiako Sustapenak agiri guztiak aztertu ondoren bete gabe daudela edo dokumenturen bat falta dela egiaztatzen bada, errekerimendua egingo zaio eskatzaileari, HAMAR (10) egun balioduneko epean, nahitaezko dokumentuak aurkez ditzan; halaber, jakinaraziko zaio horrela egiten ez badu, eskaera kanpoan utziko dela, bestelako izapiderik gabe, eta, ondorioz, horri buruzko ebazpena emango dela. Dokumentazio administratiboa zein dirulaguntza horren berariazko dokumentazioa zuzendu ahal izango da. Donostiako Sustapenak proiektuaren txostenari buruzko azalpenak eskatu ahal izango ditu, komenigarria dela jotzen badu.

Zuzenketak onuradunak harremanetarako e-mail gisa adierazi duen helbide elektronikoaren bidez helaraziko dira. (JAKINARAZPENAK EGITEKO HELBIDE ELEKTRONIKOA). Edozein modutan: jakinarazpenak web aplikazioan ere egongo dira eskuragai eskaera egin duen pertsona edo erakundearen espedientean.

Akatsak zuzentzeko eskatutako dokumentazioa aurkezteko, hasierako eskaera egiteko erabili zen bide bera erabiliko da. Posta elektronikoz bidez bidalitako egiaztagirak ez dira onartuko.

Dirulaguntzak ematea edo ukatzea Donostiako Sustapenak emandako esanbidezko ebazpenaren bidez adieraziko da, eta posta elektronikoz jakinaraziko da. Jakinarazpenak web aplikazioan –espedientean– ere egongo dira eskuragai.

10. ARTIKULUA. LAGUNTZA IZAPIDETZEA ETA EBAZTEA

Dirulaguntzak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22. artikuluan aurreikusitako lehiaketa prozeduraren bidez emango dira, honako printzipio hauek betez: publikotasuna, gardentasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, efikazia helburuak betetzean eta efizientzia baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeko orduan.

Norgehiagoka bermatzearen, proiektuaren txosten tekniko eta ekonomikoa proposamenak ebaluatzeko balio duen dokumentutzat jotzen da.

Eskaerak kanpoko adituek ebaluatuko dituzte; aditu horiek, gainera, onartutako proiektuen garapenaren eta gastuen jarraipena egin ahal izango dute, eta oinarri arautzaile hauek aplikatzean sor daitezkeen gaiak ebatzi eta interpretazioak egin ahal izango dituzte.

Aurkeztutako proiektu guztiak honela ebaluatuko dira:

- Txosten tekniko eta ekonomikoaren balorazio ("Txosten teknikoa" eranskina), gehienez 100 puntu; proiektua onartzeko, gutxienez 65 puntu lortu beharko dira.
- Elkarrizketa Donostiako Sustapenarekin, proiektuaren xehetasunak eta talde sustatzailea ezagutzeko eta proiektuak adierazitako irizpideen arabera lortu duen hasierako balorazioa egiaztatzeko.

Proiektua onartzeko eta elkarrizketa fasera igarotzeko, eskatzen den gutxieneko puntuazioa (65 puntu) gainditu beharko du txosten tekniko eta ekonomikoaren balorazioan.

Tokiko proiektuak izango dira eta ondoko ezaugarrietako bat izango dute:

- Balio bereizgarri bat izatea, gaur egungo merkatuari edo gizarteari dagokionez.
- Teknologia, ezagutza eta/edo berrikuntzaren erabilera intentsiboa.
- I+G arloko proiektuak.
- Produktu eta/edo zerbitzu berriak eta lagungarriak.
- Daudenak baino eraginkorragoak diren eta gure hiriko garapen sozioekonomikoan inpaktu handiagoa izango duten prozesuak edo negozio ereduak.
- Profil kualifikatuak eskatzen dituzten eta balio erantsi handiko profil profesional berriak bultzatzen dituzten proiektuak.

Proiektuak ebaluatzeko, honako irizpide hauek erabiliko dira:

1. Ideiaren bideragarritasuna: Merkatu argia eta zehaztua izatea, baita balio proposamenaren lehiakortasun handiagoa izatea ere.	35 puntu
--	-----------------

2. Ideiaren egingarritasuna: Lantalde sustatzailearen egokitasuna, ezagutza maila, esperientzia, harreman kapitala, proiektua garatzeko kronograma,...	30 puntu
3. Ekimenean inbertitzeko aukerak: Maila handiagoan garatzeko eta epe ertainean diruzaintza fluxuak sortzeko ahalmena (EXIT proiektuarena)	25 puntu
4. Ekimenaren eragin soziala eta ekonomikoa: Besteak beste, jatorria duen gizarte-, hiri- edo enpresa-erronkari erantzutea.	10 puntu
PROIEKTUAREN PUNTUAZIO OSOA	100 puntu

Eskaera hautatzeko gutxieneko puntuazioa 65 puntu izango da, beraz, baztertu egingo dira eskatzen den gutxienekoa baino puntuazio txikiagoa lortu duten eskaera.

Donostia Sustapena gutxieneko puntuazioa lortu ez duten baina 50 puntu baino gehiago duten pertsona eskatzaileekin harremanetan jarri ahal izango da, erakundeak proiektua ondo ulertu duela ziurtatzeko.

Onartutako proiektuak puntuazio handienetik txikienera ordenatuko dira eta –aipatu irizpideak aplikatuz– balorazio handiena jaso dutenak esleitu dira, deialdian ezarritako muga eta kreditu eskuragarria kontuan hartuta. **Ebazteko orduan, 25.000 euro emango da onartutako proiektu bakoitzeko.**

Bi eskaeraren edo eskaera gehiagoren artean berdinketa badago, 1. ebaluazio irizpidean puntuazio handiagoa dutenak lehenetsiko dira. Berdinketa ebazten ez bada, 2. ebaluazio irizpidea puntuazio handiagoa jaso duena lehenetsiko da; eta berdinketak jarraitzen badu, 3. ebaluazio irizpidearen arabera emango da lehentasuna. Berdinketa ebazten ez bada, eskaerak aurkezteko hurrenkera hartuko da kontuan.

Eskaerak hautatzeko orduan, erreserba zerrenda bat osatu ahal izango da, puntuazio ordenari jarraikiz, erakunde onuradunetako batek dirulaguntzari uko egiten badio edo aurrekontua igotzen bada, Donostiako Sustapenak dirulaguntza zerrenda horretan dagoen eskatzaile bati eman ahal izateko, deialdi berririk egin behar izan gabe.

Eskatutako dirulaguntzari buruzko ebazpena emateko epea hiru hilabetekoa izango da, deialdia ixten den egunetik hasita, administrazio dokumentazioa zuzentzeko aldiak epe horren barruan kontuan izan gabe. Dirulaguntza emateko ebazpena ezarritako epean ematen ez bada, ez du esan nahi dirulaguntza eman denik.

Eskaera onetsita, Ekin+ programa abian jarriko da eta fase intentsiborako ezarritako banakako helburuak eta mugarriak markatuko dira (proiektu parte hartzaile bakoitzaren ibilbide orria).

Dirulaguntza ematea edo ukatzea Donostiako Sustapenak emandako esanbidezko ebazpenaren bidez adieraziko da.

Ebazpenak posta elektronikoz jakinaraziko zaizkie eskatzaileei, eskabide orrian "Jakinarazpenetarako helbide elektronikoa" apartatuan adierazitako helbidean; web aplikazioan ere egongo dira eskuragai, espedientearen barruan.

Eskatzailea ebazpenarekin ados ez badago, alegazioak aurkeztu ahal izango ditu gehienez ere hilabeteko epean, ebazpena ematen den egunetik aurrera. Horretarako, Donostiako Sustapenarekin harremanetan jarri beharko du, egin beharreko izapideei buruzko informazioa jasotzeko. Donostiako Sustapenak erabakitakoa bete beharko da, eta, hala beharrez gero, bi aldeak Donostiako Epaitegien eta Auzitegien jurisdikzioaren mende geratuko dira.

11. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagun daitezkeen gastuak gauzatzeko **epea 2023ko Urtarrilaren 1etik 2024ko Urriaren 30era bitartekoa izango da**. Diruz lagun daitezkeen gastuak justifikatzen dituzten fakturek ere aldi horretakoak izan beharko dute. Gastuak justifikatzen dituzten fakturen ordainketak 2023ko Urtarrilaren 1etik 2024ko Urriaren 30era bitartean egindakoak izango dira. Fakturek erabat ordainduta egon behar dute, onartuak izateko.

Diruz laguntzeko kontzeptua 3.1 puntukoa ("Kontratazio berriak") bada, kontratazioa dirulaguntzak gauzatzen diren aldi berean hasia izango da, hau da, 2023ko Urtarrilaren 1etik 2024ko Maiatzaren 30era bitartekoa.

Oro har, zalantzarik gabe diruz laguntzen den jarduerari lotuta dauden eta Oinarri hauetan ezarritako epean egin diren gastuak onartuko dira diruz laguntzeko moduko gastu gisa. Diruz laguntzeko moduko gastuen eskuratze kostuak ez du inola ere gaindituko merkatuko balioa.

Dirulaguntza 3.1 puntuko ("Kontratazio berriak) kontzeptu baterako ematen denean: Diruz lagundu daitezkeen gastuak 6. artikuluan adierazitako baldintzak betetzen dituzten pertsonen kontratazioarekin zuzenean lotutakoak izango dira. Lan kontratuaren lehenengo 6 hilabetei dagozkien gastuak izango dira.

Egiaztatzeko orduan, ez dira aintzat hartuko 100 eurotik beherako (zergak kanpo) gastuen fakturak eta egiaztagiriak. Gizarte Segurantzako gastuak edo nominak salbu.

Txartelez eta banku transferentziaz egindako ordainketen agiriak eta helbideratze ordainagiriak baino ez dira onartuko. Egiaztagirietan egindako eragiketari buruzko informazio xehea agertuko da (onuraduna, kontzeptua, zenbatekoa, data eta abar). Ez dira onartuko banku mugimenduen zerrendak, ezta BIZUM bidez egindako ordainketak ere.

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31. artikulua aplikatu beharko zaie diruz lagun daitezkeen gastuei, espresuki hala aginduta.

Ez dira finantzarriak izango honako hauei dagozkien gastuak:

- Gauzaz egindako ordainketak.
- Enpresan ohiko / beti bezalako jarduerak gauzatzeko helburuarekin egindako gastuak, hau da, berrikuntza edo hobekuntza nabarmenik ez dakarrenak edo, oraingo egoerarekin konparatuta, merkatu berririk irekitzen ez dutenak.
- Oinarrizko ikerlana helburu dutenak; aurretik erabakitako aplikazio edo erabilera helburu gisa ezarri gabe hasten den ikerlana joko da oinarrizkotzat; beraz, pizgarria lortzeko ezinbesteko baldintza berariazko helburu praktiko bat eta enpresan izan dezakeen erabilera bilatzea izango da.
- Erakundea indarreko araudira egokitzeko egin behar diren lanak egitea.
- Enpresan lehendik dagoen aktibo finko bat (softwarea, aplikazioa, makineria eta abar) hobetzea.
- Web orrialdeak sortzea, web orrialdearen gaia proiektu berritzailea edo lehiakortasunaren hobekuntza ez bada.
- Errepikatzen diren lanak egiteko material berriak eskuratzea, ibilgetu materialetan inbertsioak egitea eta abar.
- Talde bereko enpresen artean eskaintzen diren zerbitzuak; hortaz, ez dira onartuko barne fakturazioa duten prozesuak.
- Ohiko kontabilitate, liburu edukitzailatza, auditoretza eta zerga aholkularitzari lotutako jarduerak, lehiakortasuna hobetzerik ekarriko ez duen proiektu baten garapenari lotutako aholkularitza ez direnean.
- Enpresak ondoren komertzializatzen dituen merkataritza produktuen eta/edo lehengaien erosketa, ezta laginak egiteko edo ekoizteko produktuen erosketa ere.
- Ohiko material suntsikorren eta bulego materialaren erosketa.
- Ohiko gastuak eta bereziki hornidura gastuak, hala nola argindarra, ura eta komunikazioa (telefonoa eta Internet konexioa).
- Interesak, errekaruak, zergak eta administrazio zehapenak.
- Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak.
- Janari tiketak, dietak, kilometrajea, gasolina eta abar.
- Enpresako langileen lansariak eta soldatak, 1. kontzeptuan (kontratazio berriak) planteatutakoak salbu.
- Autonomoen kuota ordaintzeko gastuak.

Oro har, Donostiako Sustapenak onetsi ez dituen gastu guztiak.

12. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAK JUSTIFIKATZEA ETA ORDAINTZEA

Dirulaguntza bi epetan ordainduko da, "lehen justifikazioa" eta "azken justifikazioa" izenburuko apartatuetan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu ondoren. Gainera, 3.1 kontzeptuari ("Kontratazio berria") dagozkion gastuak justifikatzen direnean, kontratatutako pertsonari eta bere kontratuari buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko da, oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko.

12.1 Lehen justifikazioa:

Lehen justifikazioa programaren fase intentsiboa behin bukatuta aurkeztu ahal izango da

(aholkularitzaren lehenengo 4 hilabeteak bukatutakoan), eta honako hauek ordaintzeko eskaera egin ahal izango da:

- Prestasunerako laguntza: 5.000 euro
- Ekin+ laguntza, zati bat edo osoa (gehienez 20.000 euro)

Prestasunerako laguntza epe bakarrean ordainduko da, Ekin+ Aholkularitza zerbitzuaren fase intentsiboa bukatu eta markatutako mugarriak lortu ondoren, onuradunak eskuratzen duen prestasun konpromisoa beteta.

Ekin+ laguntza ordaintzeko, zati baten justifikazioa (gastu osoa egikaritu ezin izan denean) edo gastu osoaren justifikazioa aurkeztu ahal izango da. Kontratazio berriari lotutako gastuak ez dira aurkeztuko, kontratuaren lehenengo 6 hilabeteak igaro ez badira.

Donostiako Sustapenak onetsi behar izango ditu justifikazioan adierazitako kontzeptuak eta zenbatekoak.

Prestasunerako laguntzaren ordainketa eskatzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

1. “Ordainketaren eskaera” eranskina.

Gainera, Ekin+ laguntzari dagozkion gastuak ordaintzeko eskatzen bada, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

1. **“Emaitzaren Txostena” eranskina**, programaren bidez garatu den proiektua garapena edo abian jarri den jardura deskribatzen duena eta enpresak benetan egin duen lanaren emaitzak jasotzen dituena. Hornitzaileei kontratatutako zerbitzuak eman eta ezarri direla egiaztatzeko behar besteko frogak jaso beharko ditu.
2. **“Txosten finantzariora” eranskina.**
3. Diruz laguntzen diren zerbitzu edo produktuen **fakturak**, 100 eurotik (zergak kanpo) gorako gastuei dagozkienak.
4. **Egindako ordainketen egiaztagiria.**
5. **Kontratazio gastuak justifikatzen** direnean (soil-soilik baldin eta dokumentazio hau aurkezten denerako kontratuaren lehenengo sei hilabeteak igaro badira):
 - a. Kontratutako pertsonaren "Afiliatuaren lan bizitzaren txostena", eskatutako laguntzari dagokion denboraldian eta eskaeran adierazitako lanaldiarekin enpresan egotea egiaztatzen duena.
 - b. Kontratutako pertsonaren Kotizazio Datuen Txostena – Soldatuko Langileak (IDC agiria), justifikazio epealdiari dagokiona.

12.2 Azken justifikazioa:

Ekin+ laguntzaren bidez diruz lagun daitezkeen eta lehen justifikazioan aurkeztu ez diren gainerako kontzeptuetarako eta Ekin+ laguntza osorako (20.000 euro), azken justifikazio bakarra aurkeztu beharko da, diruz lagun daitezkeen eta onetsi diren kontzeptu guztiak jasotzen dituena.

Oro har, justifikazioa aurkezteko eta dirulaguntzak ordaintzeko epeak honako hauek dira:

Azken justifikazioa aurkezteko epemuga 2024ko Urriaren 30a izango da.

Kontratazio berriaren lehenengo sei hilabeteak 2024ko Urriaren 30era arte igaro ez badira, proiektuaren justifikazioa aurkezteko epea luzatu egingo da. Hilabete bateko epea izango da, kontratuaren lehenengo sei hilabeteak igarotzen direnetik hasita.

Justifikazioa aurkezteko ezarritako epea igaro bada eta dagokion dokumentazioa aurkeztu ez bada, Donostiako Sustapenak dokumentu horiek gehienez ere 15 egun naturaleko epean aurkezteko eskatu ahal izango dio onuradunari, jakinarazpena jasotzen duenetik. Epe berri hori igarota dagokion dokumentazioa aurkeztu ezean, laguntza ez dela onartu joko da; ondorioz, onuradunak galdu egingo du dirulaguntza kobratzeko eskubidea edo, kasua bada, jada jaso duen zatia itzuli beharko du.

Ordainketa bakarra egingo da honako dokumentazio hau aurkeztu ondoren:

1. **“Ordainketaren eslaera” eranskina:**
2. **“Emaitzaren txostena” eranskina**, programaren bidez garatu den proiektua garapena edo abian jarri den jarduera deskribatzen duena eta enpresak benetan egin duen lanaren emaitzak jasotzen dituena. Hornitzaileei kontratatutako zerbitzuak eman eta ezarri direla egiaztatzeko behar besteko frogak jaso beharko ditu.
3. **“Txosten finantzarioa” eranskina.**
4. Diruz laguntzen diren zerbitzu edo produktuen **fakturak**, 100 eurotik (zergak kanpo) gorako gastuei dagozkienak.
5. **Egindako ordainketen egiaztatzea.**
6. **Kontratazio gastuak justifikatzen direnean:**
 - 6.1. Kontratatutako pertsonaren "Afiliatuaren lan bizitzaren txostena", eskatutako laguntzari dagokion denboraldian eta eskaeran adierazitako lanaldiarekin enpresan egotea egiaztatzen duena.
 - 6.2. Kontratatutako pertsonaren Kotizazio Datuen Txostena – Soldatuko Langileak (IDC agiria), justifikazio epealdiari dagokiona.

Ekin+ laguntza jasotzeko justifikazio partziala edo osoa aurkezteko, eskaera egiteko orduan proiektu propioa edo barne-ekintzailletza proiektua duten ekintzaileen kasuan, **ordainketa egin ahal izateko**, formalizatuta egon behar du enpresaren eraketak Donostian eta bete behar dira 4. artikulua irabazpidezko jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoentzat edo pertsona juridikoentzat ezarri dituen baldintzak. Horrelakoetan, gastua gauzatu izana egiaztatzen duten fakturak eratutako enpresa berriaren izenean egingo dira.

Horrez gain, kasu horietan, Ekin+ laguntzaren justifikazioa aurkeztean, enpresaren eraketa egiaztatzeko, honako hauek aurkeztu beharko da.

- Pertsona juridikoa bada, IFK agiriaren kopia.
- Pertsona juridikoa bada, eskritura edo eratze agiriak, estatutuak edo eratze akta, jarduera erregulatzeko arauak jasotzen dituena. Dokumentua pertsona juridikoaren motaren arabera dagokien erregistro publikoan behar bezala erregistratuta egongo da, hala badagokio. Nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilen kasuan, Foru Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua aurkeztuko da.
- Autonomoen Araubidean edo erregimen baliokidean izena eman izanaren agiriaren kopia.

- Enpresaren "bankuko datuen" eranskina, dagokion banku erakundeak zigilatua, edo dokumentu baliokidea, banku erakundeak behar bezala zigilatua.

Dokumentazioa bide telematikoz aurkeztu beharko da. Posta elektronikoz bidez bidalitako egiaztagirak ez dira onartuko. Era berean, eranskin guztiak osorik bete beharko dira.

Dokumentu guztiak aztertuta, benetan jaso diren zerbitzuak (neurri batean edo batere ez) onetsitako jarduketekin edo justifikatu diren gastuei dagozkien kontzeptuekin bat ez datozela egiaztatzen bada, justifikatutako jarduketei dagokien proportziozko zatia baino ez da ordainduko.

12.3 Diruz lagun daitekeen 3.1 kontzeptuaren dokumentazioa ("Kontratazio berriak")

"3.1 Kontratazio berriak" kontzeptu diruz lagungarria onetsia duten proiektuek kontratuari eta kontratatutako pertsonari buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, oinarri arautzaile hauetan ezarritako baldintzak egiaztatzeko.

Laguntzari buruzko ebazpena eman aurretik egindako kontratazioen kasuan, ebazpena ematen denetik hilabeteko epea izango dute aipatutako dokumentazioa aurkezteko.

Laguntzari buruzko ebazpena eman ondoren egindako kontratazioen kasuan, kontratazioa egiten denetik hilabeteko epea izango dute aipatutako dokumentazioa aurkezteko.

Dokumentazioa aurkezteko ezarritako epea igarota aipatu dokumentuak aurkeztu ez badira, Donostiako Sustapenak dokumentu horiek gehienez ere 15 egun naturaleko epean aurkezteko eskatu ahal izango dio onuradunari, jakinarazpena jasotzen duenetik. Epe berri hori igarota dagokion dokumentazioa aurkeztu ezean, laguntza ez dela onartu joko da; ondorioz, onuradunak galdu egingo du dirulaguntza kobratzeko eskubidea edo, kasua bada, jada jaso duen zatia itzuli beharko du.

Justifikazio partzial hori egiteko honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- "**Kontratazioaren datuak**" eranskina.
- Orrialde guztiak dituen **lan kontratuaren** kopia, alde bietan sinatuta. Honako baldintza hauek egiaztatu beharko ditu: kontratuaren iraupena, lanaldia, lantokia, beteko den lanpostua eta urteko soldata gordinaren zenbatekoa (eurotan).
- **Lan kontratuari buruzko jakinarazpena.**
- **Kontratutako pertsonaren NAN/AIZ** agiriaren kopia.
- Lanbide emandako "**Inskripzio epealdien txostena**". Dokumentua egin den data kontratazioa hasteko egunaren ondorengo izan behar du.
- Gizarte Segurantzak bidalitako **langilearen Lan Bizitza osoaren txostena**, laguntzaren xede den kontratua hasi eta gero emandakoa. (Enpresaren lan bizitza ez da onartuko)
- Kontratutako pertsonaren **errolda ziurtagiria**, Donostiako Udalak kontratazio data baino beranduago emandakoa, edo kontratatutako pertsonak Donostia Sustapenari emandako baimena, agiri hori eskatzeko ("Kontratazioaren datuak" eranskinean dago).

- Kontratutako pertsonaren curriculumak.
- Kontratutako pertsonaren titulu akademikoa.

Dokumentazioa bide telematikoz aurkeztu beharko da. Posta elektronikoz bidez bidalitako egiaztagiriak ez dira onartuko. Era berean, eranskin guztiak osorik bete beharko dira.

13. ARTIKULUA. LAGUNTZEN JARRAIPENA ETA DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUKETAK GAUZATZEA

Diruz lagundutako jardueren eta onartutako proiektuen jarraipena proiektuak gauzatu bitartean edo bukatu eta gero egin ahalko da.

Donostiako Sustapenak jarraipena egiteko beharrezkotzat jotzen duen informazio tekniko eta ekonomiko guztia eskatu ahal izango du, laguntza gauzatzeko eta justifikatzeko prozesuan eskatutako gutxieneko dokumentazioaz gain.

Laguntzen jarraipenean eta justifikazioan lortutako emaitzek esleitu den dirulaguntza murriztea ekar dezakete, baita dirulaguntzarekin bat ez etortzea ere, deialdi honetan eta hurrengoetan.

Diruz lagun daitezkeen jarduketak oinarri arautzaile hauetan adierazitako epean eta moduan gauzatu beharko dira, Donostiako Sustapenak –justifikatutako arrazoiak direla medio– kontrakoa baimentzen ez badu. Kasu horretan, esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoa ere aldatu ahal izango da.

Jarraipenaren ondorioz, erakunde onuradunari egozteko moduko arrazoiak direla eta, antzematen bada ez direla bete edo gaizki bete direla laguntzaren emakidari lotutako betebeharrak, datuak faltsutu direla, zehatzak ez diren datuak eman direla, datu batzuk aipatu ez direla edota jasotako diru kopuruetako batzuk edo guztiak laguntzaren helburuak lortzeko erabili ez direla, dagozkion lege ekintzak hasiko dira, hala badagokio, edozein laguntza edo dirulaguntza jasotzeko desgaitzea barne, dagokiona itzultzeko eta berandutze interesak ordaintzeko betebeharra galarazi gabe.

Diruz lagundutako proiektua eta jarduketak aldatzen badira, aldaketa horiek proiektua gauzatzeko epea bukatu baino (gutxienez) bi hilabete lehenago eskatu beharko dira eta Donostiako Sustapenak ebaluaziorako eskatzen duen dokumentazio osoa aurkeztu beharko da.

14. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Dirulaguntza horien onuradunek Dirulaguntzen Lege Orokorren 14. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte. Ondorio horietarako, aipatu legea bete behar dela esanbidez adierazten da, besteak beste eta bakarrak izan gabe, honako betebeharrak aipatuz:

- a) Ekarpena diruz laguntzen diren jardueretara bideratzea.
- b) Donostiako Sustapenak esanbidezko baimenik eman ez badu behintzat, aurkeztutako

- proiektuan ezarritakoa errespetatzea eta betetzea.
- c) Diruz laguntzeko moduko gastuak justifikatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkeztea, ezarritako moduan eta denboran.
 - d) Jasotako dirulaguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten dokumentuak gordetzea, horiek guztiak egiaztatu eta/edo kontrolatu baitaitezke; nolahi ere, aplikatu beharreko araudian ezarritako epean gordeko dira.
 - e) Proiektua osatzen duten jardueren gastu eta diru-sarrera guztiak kontabilizatzea.
 - f) Kontabilitate liburuak behar bezala eramatea, horretara behartuta egonez gero.
 - g) Egunean izatea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
 - h) Laguntzak emateko kontuan hartutako edozein inguruabar –subjektibo zein objektibo– aldatu baldin bada, Donostia Sustapenari horren berri ematea.
 - i) Emandako laguntzei dagokienez, Donostia Sustapenak bere eginkizunak betez eskatzen duen informazio guztia ematea.
 - j) Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk jasoz gero, Donostia Sustapenari horren berri ematea.
 - k) Donostiako Sustapena aipatzea diruz lagundutako proiektuak sustatzeko eta zabalkundea egiteko jardueretan; horretarako, erakundearen logoa jarriko da, baita dagokion legenda ere, egingo diren komunikazio euskarrietan (web orrialdeak, kartelak, mezu elektronikoak eta abar).
 - l) Donostiako Sustapenak diruz lagun daitezkeen proiektuen jarraipena eta ebaluazioa egiteko asmoz antolatzen dituen bilera guztietan parte hartzea.
 - m) Jasotako dirulaguntza dela eta Donostia Sustapenak dei ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena eta abar).
 - n) Laguntzaren xede den proiektuan ezarritako baldintzak aldatzen dituen edozein egoeraren berri Donostia Sustapenari ematea.
 - o) Ekin+ programaren indarraldian, proiektuak beste azelerazio- edo *mentoring*-programa batean parte hartuko duela erabakiz gero edo Ekin+ programarako eskaera egitean horrelako batean parte hartzen badu, Donostiako Sustapenari horren berri ematea.
 - p) Donostia Sustapenari laguntzea, hala badagokio, egin ditzakeen finantza kontroleko eta egiaztapeneko jarduketetan, eta bere esku jartzea eskatzen duen informazio eta dokumentazio guztia.
 - q) Laguntzaren xede den jarduera gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
 - r) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.
 - s) Donostiako Sustapenari baimena ematea bere enpresen direktorio digitaletan eta I+G+b arloko eragile diren erakundeetan honako hauek argitaratzeko: harremanetarako pertsonaren datuak, jarduera, izen komertziala, logoa, marka eta beste edozein bereizgarri, pertsona onuradunak trafiko ekonomikoan erabiltzen duena. Ondorio horretarako, pertsona onuradunak elementu horiek adierazitako helburuekin bakarrik erabiltzeko eta ustiatzeko lizentzia bat emango dio Donostiako Sustapenari eta Sustapenak era baketsuan erabiltzea bermatuko du.
 - t) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikazio euskarrietan (webgunea, sare sozialak, mailinga, megafonia eta abar), sustapen eta hedapen materialetan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan eta abarretan.

Pertsona onuradunek Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango dute testuak itzultzeko eta horiek zuzentzeko, (hilean gehienez ere 1.000

karaktere itzultzeko eta 9.000 karaktere zuzentzeko), baldin eta zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira:

<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/eu>

15. ARTIKULUA. ITZULKETA

Onuradunak jaso duen laguntza eta diruaren legezko interesa itzuli beharko ditu emandako kopuruak ordaindu diren unetik, kasu hauetako edozeinetan:

- Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharrak larriki eta behin eta berriz ez betetzea. Ez-betetze larritzat eta/edo errepikatutzat joko da oinarri hauetako betebeharren bat edo batzuk behin baino gehiagotan ez betetzea; emandako edozein datu, ziurtagiri, txosten eta/edo dokumentazio faltsutzea; eta/edo oinarri hauen esparruan jasotako laguntza guztia edo zati bat desbideratzea, aurreikusitako helburuetarako ez bada.

- Laguntzaren xedea Oinarri hauetan aurreikusitako moduan justifikatzeko betebeharra ez betetzea eta behar bezala ez justifikatzea.

- Onuradunaren jardueraren gainean egin daitezkeen egiaztatze- eta ikuskatze-lanei aurre egitea, aitzakiak jartzea, oztopoak jartzea edo uko egitea, bai eta kontabilitate-, erregistro- edo kontserbazio-betebeharrak ez betetzea ere, baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu jasotako ekarpenei emandako erabilera, finantzatutako jardueren errealitatea eta erregularutasuna, edo helburu bererako beste edozein administrazio, erakunde publiko edo elkartetatik datozen dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak.

- Jarduera gehiegi finantzatuz gero, gastatu gabeko edo gainfinantzatutako zenbatekoa.

Dirulaguntza itzuli egin beharko da, eta, horretarako, Donostia Sustapenak egiaztatu eta onuradunari bidali beharko dio, ondoren deskribatutako baldintzetan, oinarri honetan ezarritako arrazoiren bat gertatzen dela.

Itzulketa laurogeita hamar (90) egun naturaleko epean egin beharko da, Donostia Sustapenak onuradunari burofax bidez artikulu honetan aurreikusitako itzulketa-arrazoiren bat badago.

Aipatutako itzulketa-arrazoiren bat egonez gero, onuradunak kobratzeko eskubidea galduko du, hala badagokio, ordaindu gabe gera daitezkeen zenbatekoak kobratzeko.

Nolanahi ere, laguntza hauek jaso ahal izateko eskatzen diren baldintzak uneoro bete eta mantendu beharko dira. Bestela, Donostia Sustapenak horiek itzultzeko eskatu ahal izango du, aurreko paragrafoetan zehaztutako baldintzetan. Era berean, ez-betetze larrienen kasuan, hala nola datuak faltsutzea edo jasotako laguntza osoa edo haren zati bat desbideratzea, Donostiako Sustapena SAK ahalmena izango du emandako laguntza baliogabetzeko eta, hala badagokio, jasotako kopuru guztiak itzultzea aukeratzeko, bai eta jasotako zenbatekoaren boskoitza ordaintzeko ere.

16. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, jakinarazten da ematen dizkiguzun datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela, eta Donostiako Udala izango dela tratamenduaren arduraduna, eta Donostia Sustapena S.A.k kudeatzen duen informazioa izango dela tratamenduaren arduraduna.

Tratamenduaren helburua laguntza eskaera tramitatu eta kudeatzea da.

Tratamenduaren zilegitasunaren oinarria Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikulua da: tratamendua beharrezkoa da interes publikoan egindako misio bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko: Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriei buruzkoa, eta apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

Oinarri hauetan edo eskabideetan hala adierazten bada, datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa nahitaez eman beharko da, eta ez bada behar bezala hornitzen edo datu okerrak ematen, eskaera ezin izango da kudeatu.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak erakunde nazionalen edo nazioz gaindiko entitateen alde laga ahal izango dira, baldin eta laguntza horiek kofinantzatzen badituzte eta/edo Donostia Sustapenarekin batera kudeatzen laguntzen badute, hori beharrezkoa denean, eta soilik haien kontzesioa kudeatzeko.

Era berean, aditzera ematen da laguntzak emateak pertsona onuradunaren identifikazio datuak jakinarazi edo lagatzea ekarriko duela, eta emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera Donostia Sustapenaren webgunean eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratuko direla.

Ez dago aurreikusirik hirugarrenentzako datu-komunikazio gehigarririk, legezko betebeharra izan ezik, eta ez da aurreikusten nazioarteko datu-transferentziarik.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak behar den denboran gordeko dira bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik sor daitezkeen erantzukizunak zehazteko. Artxibo eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Ukitutakoek datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeke eskubideak erabil ditzakete, baita datuak babesteko indarrean dagoen araudian jasotako beste eskubide batzuk ere, hala dagokionean, Donostiako Udaleko Udalinfo Zerbitzuan (Easo kalea 41, 20006 Donostia).

Eskubideak erabiltzean behar bezalako arreta eman ez badizute, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. Sol., 01008 Gasteiz. Hala ere, aurretik eta aukeran, Donostiako Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke: dbo@donostia.eus.

17. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

Indarra sartzea eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta argitaratu eta biharamunean hartuko dute indarra.

Eskabidea aurkezteak berarekin dakar oinarriak oso-osorik onartzea.

Erantzukizunetik libratzea.

Onuraduna izango da laguntzaren xede den jarduera egin aurreko edo ondorengo jardueren ondorioz edo jarduera horren ondorioz sortzen diren kalte pertsonal eta/edo materialen erantzule bakarra, eta Donostia Sustapenak ez du inolako erantzukizunik izango kontzeptu horiengatik.

18. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Ematen diren laguntzak oinarri hauetan jasotako arauen arabera arautuko dira, eta, osagarri gisa, DLOn eta hura garatzeko Erregelamenduan jasotako arauen arabera (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, DLOren Erregelamendua onartzen duenak, aurrerantzean DLO), baina soilik DLO horretan jasotako kudeaketa-printzipioei eta 20. artikuluan aipatzen diren informazio-printzipioei dagokienez, hori guztia DLOren 3.2 artikuluaaren bigarren paragrafoari jarraiki (artikulu horrek aplikazio hori zehazten du).

Bestela, DLO eta DLOren erregelamendu horiek bakarrik aplikatuko dira oinarri hauek legezko testu horietara espresuki jotzen dutenean.

Donostian, 2023ko Uztailaren 24(e)an

Marisol Garmendia Beloqui.

Ekonomiako, Bertako Enplegurako eta Ekologiako zinegotzi ordezkaria.